



Aldaketa sozioekonomikoa berehalakoan etorriko da, osasun bakarra dagoela ulertzen dugunean



Mar. 17 2022

Kod. W03-22

Mod.:

Online zuzenean Aurrez aurrekoa

Edizioa

2022

Jarduera mota

Jarduera irekia

Data

Mar. 17 2022

Kokalekua

Miramar Jauregia

Hizkuntzak

Gaztelera

Antolakuntza Batzordea



Azalpena

Ingurumen-krisia konpontzeko aldatu beharra dugu, eta planetaren osasunerako arriskuek ekintzaren gorakada ekar dezakete.

Bada hazten ari den ebidentzia bat gizateriaren norabide larriaren inguruan. Norabide hori klima-aldaketan, biodibertsitate-krisian eta kutsatzeko modu anitzetan agertzen da bereziki. Ingurumen-diagnostikoen inguruko txosten zientifikoek beterriko hiru hamarkada ez dira nahikoa izan, gizarte-egitura eta eredu ekonomikoa nabarmen aldatzeko. Pizgarria pertsonen zein ekosistemen osasunaren artean egiaztatzen ari diren lotura estuetatik dator. Pertsonen osasuna osasun-gaien menpe egoteaz gain, gizarte-alderdien eta alderdi ekologikoen menpe dago ere, hala nola, desberdintasunaren eta biodibertsitatearen menpe.

Naturarekin berriro batzea eta gure proiektuak erritmo eta dinamika naturaletara egokitzea, bai ondasun eta zerbitzuen horniduran bai eremu degradatuen birsorkuntzan, ez da hautazko kontu bat gure ongizateak eta gure bizimoduarekin sortzen ari garen kolapso arriskuak saihesteko kezkatzen bagaitu. Fokua aldatzeko eta gure osasuna zein biziraupena ekosistemen egoeraren menpe daudela ulertzeko gure ekintzak ikuspegi multidiziplinar batekin koordinatzea eskatzen du.

Ikastaroaren laguntzaile espezifikoak



Programa

2022-03-17

Eva Caballero kazetariak hizlariarekin elkarrizketa izango du hitzaldia amaitutakoan / La periodista Eva Caballero mantendrá un diálogo con el ponente una vez finalizada la conferencia

18:00 - 19:00

“El cambio socioeconómico sobrevendrá cuando comprendamos que solo hay una salud“

Fernando Javier Valladares Ros | Profesor de investigación del CSIC y profesor asociado de la Universidad Rey Juan Carlos / CSICeko ikerketa-irakaslea eta Rey Juan Carlos Unibertsitateko irakaslea

Irakasleak



Fernando Javier Valladares Ros

Profesor de investigación del CSIC y profesor asociado de la Universidad Rey Juan Carlos

Fernando Valladares CSICeko ikerketa-irakaslea eta Juan Carlos Erregea Unibertsitateko irakasle elkartua da. Fernando Valladares biologian doktorea, Zientzia Ikerketen Kontseilu Nagusiko ikertzailea eta Madrilgo Juan Carlos Erregea Unibertsitateko irakasle elkartua da. Zientzialari oso aipatua da, eta ikerketa ugari egin ditu biodibertsitateak, klima-aldaketaren eraginak eta giza-jarduerak ekosistemetan jokatzen duten paperaren inguruan. 2021ean Jaume I saria jaso zuen, Ingurumenaren Babesa kategorian, baita BBVA Fundazioaren Ingurumen Komunikazioko Saria ere. Ingurumen-krisiaren inguruko kezka krisiaren beraren inguruko informazioa modu aktiboan zabaltzera bultzatu du komunikabide ezberdinetan eta bere sare sozialetan, bereziki, bere La Salud de la Humanidad kanalean. Bere curriculumaren xehetasunak eta dibulgaziozko ekoizpen guztia, ikus-entzunezko hainbat formatutan eta prentsan, irratan eta telebistan, bere webgunean aurki daitezke: www.valladares.info

Matrikula prezioak

IZEN EMATEA - AURREZ AURRE

2022-03-17 ARTE

[Matrikula doan](#)

0 EUR

IZEN EMATEA - ONLINE ZUZENEAN

2022-03-17 ARTE

[Matrikula doan](#)

0 EUR

Kokalekua

Miramar Jauregia

Mirakontxa pasealekua 48, 20007 Donostia

Gipuzkoa